# MARIAREN SORRERA GARBIA.

## AMALAUDUNA.

Goi goyetako ego zabaldun espirituak
Urregorrizko zitaraz danok goyan beian
Eki—yozuejoten gaur soñu berarizkuak
Gorderik euki dozuezanak isillean;
Galaz ornidu, ederrez jantzi bitez zeruak,
Irribarrea agertu bedi sortitzean;
Bere negarrak leortu begiz mundu osuak
Zerren mirari andi bat jazo dan lurrean.
Sortu da bada, icharoten zan neskatillea,
Jayo baño len usaiña asi da zabalduten,
Gure zorion betikoaren urreratzea,
Erneko jakun lirioan da ulertuten,
Zerren Maria asieraz dan doez betea,
Loiak ez deutsa bere sorreran ikututen.

FELIPE ARRESE TA BEITIA.

1891-ko Mariaren Sorrera garbiko egunean.